

DATUEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIOA

DATUEN TRATAMENDUAREN ARDURADUNA

Identitatea: Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua
Helbidea: González Tablas kalea 9, 31005 Iruña
Helbide elektronikoa: animales.compania@navarra.es

DATU PERTSONALEN TRATAMENDUAREN HELBURUA

Lagun Egiteko Animaliak Identifikatzeko Nafarroako Erregistroa (RIACNA) kudeatzea izanen da datu pertsonalak tratatzearen helburua.

Formularioan jasotako datuak eta aplikatu beharreko araudiaren arabera nahitaezkoak direnak ez jakinaraztea arau-hauste administratibotzat hartzen ahalko da, apirilaren 4ko 19/2019 Foru Legean xedatutakoaren arabera.

GORDETZEKO EPEA

Erregistroarekin lortu nahi den helburua ziurtatzeko behar den denbora guztian gordeko dira datu pertsonalak, eta artxibo publikoei buruzko araudia aplikatuko zaie.

INTERESDUNEN ESKUBIDEAK

Interesdunak RIACNA aplikazioaren bidez egiaztatzen ahalko ditu bere datuak, esteka honetan: <https://riacna.es/>. Halaber, helbideari, telefonoari edo helbide elektronikoari buruzko datuak aldatzeko eskatzen ahalko du. Horretarako, eskaera bat bidali behar dio bizi den herriko Udalari edo Nafarroako Albaitarien Elkargo Ofizialari, edo webgune honetan [aurkeztu: https://www.navarra.es/eu/tramiteak/on/-/line/lagun-egiteko-animaliak-identifikatzeko-erregistroa](https://www.navarra.es/eu/tramiteak/on/-/line/lagun-egiteko-animaliak-identifikatzeko-erregistroa)

Halaber, interesdunak eskubidea du datu pertsonaletan sartzeko, haiek zuzentzeko, deuseztatzeko, tratamendua mugatzeko, kontra egiteko eta datuak eramateko, online (helbide elektronikoa honetan: <https://www.navarra.es/eu/tramiteak/on/-/line/datu-pertsonalak-babesteko-eskubideak-baliatzea>), aurrez aurre, Nafarroako Gobernuaren [erregistroetan eta herritarrei arreta emateko bulegoetan](#) edo [39/2015 Legean](#) ezarritako beste edozein tokitan, edo helbide elektroniko honetara idatzita: animales.compania@navarra.es.

Erabiltzaileek erreklamazioa jartzen ahal diote [Datuak Babesteko Ordezkaritzari](#), edo [Datuak Babesteko Espainiako Agentziara](#) jo, baldin eta uste badute beren eskaerari ez zaiola behar bezala erantzun.

DATU PERTSONALEN TRATAMENDUAREN LEGITIMAZIOA

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1 c) artikulua. Datuen tratamendua beharrezkoa da tratamenduaren arduradunari dagokion lege-betebehar bat betetzeko: 19/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa, lagun egiteko animaliak Nafarroan babesteari buruzkoa, eta 94/2022 Foru Dekretua, urriaren 26koa, hura garatzeko erregelamendua onestekoa.

DATUEN HARTZAILEAK ETA NAZIOARTEKO TRANSFERENTZIAK

Datuok lagako zaizkie udalei, udaltzaingoei, Foruzaingoari, Guardia Zibilari eta Polizia Nazionalari, lagun egiteko animaliak aldi baterako hartzeko zentro baimendua duten Nafarroako Gobernuaren erakunde laguntzaileei, Albaitarien Elkargo Ofizialari, albaitaritzako elkargokideei eta baimendutako pertsoneri, zeinek bere eginkizunak eta eskumenak bete ditzan, lagun egiteko animaliak Nafarroan babesteari buruzko apirilaren 4ko 19/2019 Legean eta hura garatzeko erregelamenduan ezarritakoarekin bat.

Honako hauek ere datuen hartzaile izanen dira, tratamendu-eragile gisa: Nafarroako Albaitarien Elkargo Ofiziala (info@covetna.org), Albaitarien Elkargo Ofizialen Andaluziako Kontseilua eta lagun egiteko animaliak identifikatzeko Nafarroako Gobernuak gaitu dituen albaitariak

Ez da eginen nazioarteko datu-transferentziarik.

INFORMAZIO GEHIGARRIA

Nafarroako Gobernuaren webgunean, esteka honen bidez:
<https://gobiernoabierto.navarra.es/eu/gardentasuna/datuen-babesari-buruzko-informazio-klausulak>